



## 'UMAMA II'-REN DOINUAK BONBERENEAN

Etzi aurkeztuko dute Juantxo Zeberioek eta taldekideek proiektu berria; futbol zelaian izango da kontzertua >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-05-22

VIURTEA 1.440 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Haurrek danborra jo zuten Kukuak jeisten ari zen bitartean. I. GARCIA

## KUKUAREN ETORRERAREKIN PIZTU DA JAI GIROA

**ANOETA** Atzo hasi ziren herriko jaiak suziriarekin eta Kukuarekin; gaur, Korputs Eguna izango da, haurrentzako hainbat ekitaldirekin 4

## Energia berdeen inguruan Jeremy Rifkinekin

**TOLOSA** Naturaldia jardunaldien baitan hitzaldia izango da astelehenean, Txillida Lekun 3




Xibakoan jolasekin aritu ziren atzo ikastetxeetako gaztetxoak. N. URBIZU

## Herri kirolak eta harremanak sustatzeko ekimena 5

**DISEINU GRAFIKO** eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINZA . PUBLIZITATEA .  
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es  
**INFORMAZIOA 943 310 873**

Herriz Pasalekua 06 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 070

# Thomas Garrettek bere azken lana aurkeztuko du

**Kultura** » Fronton kafetegian eskaniko du kontzertua bihar, 23:30etik aurrera; 'Sky Pointing' du izena bere azken diskoak.

## ERREDAKZIOA

Garrett Wall Band izango da entzungai bihar Fronton kafetegian, emanaldia 23:30ean hasiko da. Musikari honek Irlandar tradizio-ko doinuak gogorazten ditu bere abestietan.

Thomas Garretten ibilbideak biribil perfektu bat egiten du. Bere lehendabiziko lana, azkena bezala akustikoa izan zen eta *All of the Above* zuen izena. Hurrengoak rock ikutukoak zirena: *Change* eta *Gravity*. Bere azken aurreko diskoak berriz, *Daylight Nighttime* deitzen da eta duela bi urte kaleratu zuen.

Oraingoan, aipatu bezala, akustiko batekin dator, *Sky Pointing*. Bertan lau instrumentu bakarrik erabili ditu: gitarra, baxua, tronpetak eta kaxoia. Honekin, barneko



Thomas Garrett eta bere taldekideak Frontonon izango dira bihar. HITZA

nahiz ezkutuko soinua sortzea lortu du.

Nabarmentzekoa da kaxoiaren erabilera, honek batera ordezkatzeko baita Thomas Garretten taldean. Musikariaren esanetan, berak egiten dituen abestiak, alaiak, dinamikoak, eta baikortasunaz be-

teak dira. Hauetan amodioaz, maitasun ezaz eta itxaropenaz hitz egiten du.

*Sky Pointing* Madrilgo PKO estudioan grabatu zuten, eta Nashvillean nahastu. Lan honetan aritzen diren David Ferguson, Rick Rubin ekoizlearen laguntzaileak.



Jazz doinuak eta abesbatzarenak elkartzen ditu Umamak. HITZA

# Bonbereneako zelaian 'Umama II' izango da entzungai etzi

**Kultura** » Horrelako talde batentzat ohikoa ez den eskenatoki batean eskainiko dute kontzertua Tolosakoek.

ten, eta ondorengo musikariek hartu zuten parte: Juantxo Zeberio piano-jotzaile eta kompositoreak, Hodeiertz abesbatzak eta Enrique Azurza bere zuzendariak eta Gonzalo Tejado kontrabaxuak, Hasier Oleaga bateriak eta Mikel Andueza saxoak. Argitalpena Bonberenea ekintzak-ek egin zituen ekoizpen lanak, eta Elkar estudioetan grabatu zuten.

## ERREDAKZIOA

*Umama 2* aurkeztuko dute etzi 22:30ean, Juantxo Zeberio eta gairontzeko proiektuko kideek Bonberenean. Gainera, eguraldiak laguntzen badu, emanaldia kanpoan izango da, futbol zelaian hain zuten ere. Musikariek topikoekin hautsi nahi zuten, eta beraien bezalako musika Bonberenea bezalako toki batean ezagutzera eman. Izan ere, Zeberio aipatutakoaren arabera, Umama proiektuak talde honek duen pentsatzeko moduarekin eta filosofiarekin badu lotura.

Kontzertura joan nahi duen orok bertan eros ditzake sarrerak, bost euroren truke. Gainera emanaldian zehar, berezitasun gisa, Imanol Aizpuruk mural bat margotuko du. Xabier Erkizia musikaria ere bertan izango da, kontzertu kutsu berriztatzaile bat emateko asmoz.

Umamaren proiektuaren bigarren zatia abenduan kaleratu zu-

## Euskal abesti ezagunak zein berriak

*Umama II* diskoan Imanol, Benito Lertxundi, Juan Carlos Perez eta Mikel Laboa bezalako euskal kantari ezagunen lanak bildu dituzte. Kantu guztietan, jazz laukotea eta abesbatzaren arteko elkarriketa naturala bilakatu eta sonoritate desberdinak arakatzeko dituztelarik.

Kontzertu baten ondorioz jaio zen Umama, duela urte batzuk, eta pixkanaka, beste hainbat ekimen ere prestatuz joan dira tartean. Hala, 2007ko abenduan etorri zen Umamaren bigarren diskoa. Egileek, «proiektu berezi, maila handiko eta bakar gisa deskribatzen dute». Orain, horrelako talde batentzat ohikoa ez den eskenatoki batean entzun ahal izango ditu jendeak.



# TLHlak ISO 27001 agiria jaso du

**HEZKUNTZA** » Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak ISO 27001 ziurtagiria jaso du (Informazioaren segurtasuna). Heziketa zentroak lau urte daramatza informazioaren segurtasuneko alorrean lan egiten. Hau

egiturazko estrategia bezala ikusten duelarik. Lorpen honi esker hezkuntza alorrean erreferente bilakatuko da Tolosako zentroa, Europar sistema hau erabiltzen duen bakarria baita. ESTI/EZEIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzan.info / Tel.: 943-65 56 95



## Sahararren aldeko aldarriak

**TOLOSA** ■ Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi elkartek Maiatza Borrokan jardunaldien baitan elkarretaratzera deitu zuen herenegun *Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat* lelopean, borroka armatuaren hasieraren 35. urteurrenaren eguna zela eta. Pla-

za Zaharreen 25 lagun inguru bildu ziren, eta elkarretaratzea egin eta gero bi sahararrek hitz egin zuten gaztelaniaz eta euskaraz Saharako egoeraz, eta bertaratu zirenei eskerrak eman zizkieten. Elkarretaratzearekin amaitu dira sahararren egoera politikora gerturatze jardunaldiak. I. TERRADILLOS



## Ekintzaileen lana eskertuz

**TOLOSA** ■ Tolosaldea Garatzenek Eskualdeko II. Ekintzaile Eguna antolatu zuen herenegun Ildiakes jauregian. Iaz Autolaguntza zerbitzuak lagunduta 39 enpresa sortu ziren, eta atzoko helburua, horiek omentzea zen. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak aurkez-

pena egin ostean, Enpresa Zientzietan Dokortetua den Iñazio Irizarrek langile bakarrek nahiz 100 langileko enpresa izan egindako lana kontuan hartu eta eskertzea zela asmoa esan zuen, eta hainbat ekintzaileen adibideak jarri zituen. Ondoren, ekintzaileei oroitaria banatu eta luncha hartu zuten. I.T.

# Naturaldia jardunaldiak bukatzeko, Jeremy Rifkinen hitzaldia astelehenean

### ERREDAKZIOA

*Energia, eta ekin!* lelopean energia berriztagarriak izan dituzte ardatz Tolosako Udalak Foru Aldundia- ren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolaturiko Naturaldia jardunaldiak, eta datorren astelehenean, hilaren 26an, iritsiko dira amaierara. Hain zuzen ere, Jeremy Rifkinek Hernaniko Chillida Lekun 19:30ean emango duen *Hirugarren industria Iraultza: energia berdearen arorantz eta hidrogenoaren ekonomiarantz bidea irekitzen* hitzaldia izango da azken ekitaldia.



Jeremy Rifkin. HITZA

### Energia berdean aditua

Foundation on Economic Trends erakundearen presidentea da Jeremy Rifkin eta aldaketa zientifiko eta teknologikoen ekonomiarengan, esku-lanarengan, gizartearengan eta ingurugiroarengan duen eraginari buruz hamazazpi bestseller idatzitako bere bizitzan

zehar. Horretaz gain, Europar Komisioaren, Europako Parlamentuaren eta Europar Batasunaren aholkularia da Rifkin, baita mundo osoko hainbat agintarirena ere. Aldaketa klimatikoaren eta energia-segurtasunaren erronkei aurre egiteko praktika onenen inguruko eta punta-puntako teknologien inguruko aholkularitza-lanak egiten

ditu Rifkinen Garapen Eramangarriko Taldeak mundo osoko gobernu eta enpresentzat.

### Energia gutxitzeko konpromisoa

Atzoko aurkezpenean, Javier Zarraonandia Foru Aldundiko Ingurugiro saileko zuzendaria, Yurre peñagarikano Tolosako Udaleko ingurugiro zinegotzia, Aintzane Lasarte Chillida Leku museoko ordezkarria eta Shole Martin Naturaldiaren antolatzailea izan ziren. Zarraonandiak Gipuzkoan energiaren kontsumoa gutxitzeko konpromisoa izan behar dugula esan zuen; «egungo egoerak ingurumen-inpaktu larriak sortzen ditu, eta energia jasagarria erabiltzearen bidetik jo behar dugu; esaterako, hidrogenoa etorkizunean energiaren ardatz izango da, eta beste energia batzuk baino eraginkortasun handiagoa izanik, ez du era-gin ezkorrik ingurugiroan».

### » HAINBAT DATU

- **Hitzaldia.** *Hirugarren industria Iraultza: energia berdearen arorantz eta hidrogenoaren ekonomiarantz bidea irekitzen*, Jeremy Rifkinekin.
- **Lekua eta eguna.** Chillida Lekun, astelehenean, hilak 26, 19:30ean.
- **Izen-ematea.** Parte hartzeko, 943 33 59 63ra deitu behar da.

Donostian bi enpresa ari dira hidrogenoarekin lanean; Zarraonandiaren ustez, «beharrezkoa da energia hauek eguneroko bizitzan sartzearen beharra zabalitzea». Hain zuzen ere, astelehen goizean enpresa horietara egingo du bisita Jeremy Rifkinek. Arratsaldeko hitzaldiari dagokionez Markel Olano Diputatu Nagusia ere izango da. Antolatzaileen hitzetan, «Naturaldia borobiltzeko ezin egokiagoa da Rifkinen hitzaldia, bera baita hidrogenoa erabiltzea bezalako ekimenen aita».

## Laburrak

### AHTri buruzko bilera, gaur, Kultur Etxean

**GIZARTEA** ■ AHT Gelditu elkarlanak deituta, gaur bilera izango da Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan. Aurrera begirako plangintza aztertuko dute.

### Txinparta elkartearen 52. Artisten Erakusketa

**KULTURA** ■ Txinparta elkarke 52. Tolosako Artisten Pintura Erakusketa antolatu nahi du. Koadroak ekainaren 16, 17 eta 18a bitarte aurkeztu behar dira Txinparta elkartean, 19:00etatik 21:00etara. Epaimahaia erabakia Erakusketa-aren inaugurazioan ezagutzera emango da, ekainaren 21an.

### Ate irekiak jardunaldiak Tolosako Paper Eskolan

**HEZKUNTZA** ■ Paper Eskolak ate irekiak jardunaldiak izango ditu instalazioak eta datorren ikasturteko hezkuntza eskaintza erakusteko. Gaur eta bihar 18:30ak arte eta etzi 13:00 arte izango da.

ANOETAKO  
"aiak"

# Anoetako Udala

Ono pasa korputsetan!!

AHTgelditu!  
LUGARREAN

EUSKAL PRESOAK  
EUSKAL HERRIRA



Txalapatariak festa hasiko zela iragarri zuten. I. GARCIA



Landatarrek txupinazoaren aurretik bi pieza jo zituzten. I. GARCIA



120 hur inguruk parte hartu zuten danborradan, txarangak jarritako doinupean. I. GARCIA



Plazan jo ondoren, danbor-jotzaileek kalejira egin zuten. I. GARCIA

## Kukuak ekarri ditu festak

**Anoeta** » Ohiko ekitaldiekin eman zitaion atzo hasiera ofiziala jaiei: txalapatariak, Kukuaren etorrera, txupinazoa eta haurren danborrada.

IMANOL GARCIA

Txupinazoak eta Kukuak eman diote hasiera Anoetako jaiei. Hori bai, hasiera ofiziala, aurreko aste-buruan dagoeneko jai giro ederra izan baitzen. Jende ugari izan zen atzo arratsaldean plazan. Txalapatariak badaezpada deitu zituen falta zirenak eta gogorarazi txupi-

nazoa gertu zela. Kanpai hotsak lagun zituela, Kukua elizatik udal-txe aldera jaitsi zen.

Gero, pregoiaren unea iritsi zen. Aurtengoan Landa aita- seme aho-soinu jotzaileek izan zuten horren ardura. Beraientzat «ohorea» zela esan zuten eta ondoren beraiek hobekien dakiten bezala eman zie-

ten hasiera jaiei, aho-soinuarekin bi pieza joz. Hori esan eta gero txupinazoa bota zuten eta haurren txanda etorri zen.

### Danborrari indarrez

Txapel berde, gorri eta beltzek gogoz eman zioten danborrei. Txarangaren doinuei eta zuzendarien makilei jarraituz, ederki astindu zituzten danborrak, guraso ugari inguruan zituztela bideo eta argazki kamerekin. Danbor hotsei Loatzeko musika eskolako trikitilariek eman zioten jarraipena.

### » GAURKO EGITARAUA

- **10:30-13:30.** Ume eta gaztetxo-entzako parkea plazan.
- **16:00.** Patxin eta Potxin pailazoaren emanaldia plazan.
- **17:00.** Buruhandi eta erraldoen kalejira herriko txistulariekin.
- **18:00.** Txokolate jatea plazan, Ateaga Elkartek antolatuturik.

- **19:00.** Loatzeko musika eskolako kontzertua plazan.
- **21:00.** Sahieski jatea frontoian, Anoetako ezker abertzaleak antolatuturik. Txartelak salgai Buztinan, Arkupen, Itzulin eta Laian.
- **23:00.** Saioa ta Alabier trikitilarien emanaldia plazan.

Festen hasiera ekitaldia borobiltzeko, sardina jatea egin zuten herri-tarrek. Gauerako gelditu ziren dantzarako kontuak, Lauburu tal-

dearekin. Igandera arte hainbat ekitaldi izango dira. Gaur, Korputz Eguna, haurrei zuzendutako hainbat ekitaldi izango dira.

Zinema euskaraz **berriekin**

### Maiatzaren 24an, larunbata

filma DVD formatuan



1976ko uztailearen 23an desagertu zen Eduardo Moreno Bergaretxe "Pertur" ETA pm-kidea. Oraindino ez da gorpurik agertu, ezta ikerketarik egin ere. Dokumental honek Pertur desagertu zen urtearen kontaketa egin eta hipotesi berri bat jartzen du mahai gainean pasadizu iluna apur bat argitzeko. Honen arabera, zantzu asko daude Pertur Espainiako Poliziaren aginduz Italiako neofaxistek bahitu zutela pentsatzeko.

berria **+ 6,95€**




OHARRA: birbigilak bukatu arteko eskaintza



## Billabonatarren emaitza onak judoan

**VILLABONA** » Judoko Gipuzkoako Txapelketan 4 billabonatarrek emaitza onak lortu zituzten. Luis Mujikak 31 kilo beherako mailan brontzezko domina lortu zuen. Mikel Fernandezek ere brontzezko domina es-

kuratu zuen 40 kilo beherako mailan. Unai Iparragirek ere brontzezko domina lortu zuen 48 kilo beherako mailan. Azkenik, Xabier Zuriarrainek urrezko domina lortu zuen 52 kilo beherako mailan. HITZA



Uztaien barruan hirunaka, uztaiak pibotearen barruan sartu behar zuten: ez zen lan erraza izan...N.U.

## Xibakoen jolasekin gozatu dute sei ikastetxetakoak

**Aisia** » Samaniegoko, Laskoraingo eta Hirukidekoak, Alegiakoak, Abaltzisketakoak eta Ikaztegiakoak izan ziren.

### NEREA URBIZU

Tolosako Plaza Berrian atzo Xiba elkartearekin jolasten izan ziren Tolosako Samaniego, Hirukide, Laskorain ikastetxekoak, Alegiakoak, Abaltzisketakoak eta Ikaztegiakoak.

Kasu honetan, herri kirolak eta beste joku batzuk ere egiteko aukera izan zuten: sokatira, oskol-biltzea, jende proba, azeri buztana, uztai jokua, marrazkiena irudimena lantzeko, kixkilarekin pilotak bildu, aras lama joku ginearra... Guztietan aritu ziren denak.

Egun bikaina egin zuen gainera, eta haurrek asko gozatu zuten Tolosako plazan, talde ezberdinetan banatuz, jolas berriak ezagutzen eta adineko jende ezberdinarekin harremanak izaten.

### Bideoak webgunean

Goiz osoan zehar aritu ziren gazte txoak jolasetan. Goiz hartako bideoak daude TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean ikusgai.



Sokatiran ahaleginak eginen. Azkenean, lortu zuten haien aldera egitea...N.U.



Jende-proban, tira eginez, gurpilekoak kokolok jaso behar zituen...N.U.



Iñaki Murua Altzoko alkatea eta Jon Mujika, Hitzaren kudeatzailea...N.U.

## Altzok 3 euro emango ditu biztanleko HITZaren alde

### ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN atzo hitzarmena sinatu zuten Iñaki Murua Altzoko alkatea eta Jon Mujika Tolosa Herria Hedabideakeko kudeatzaileak. Hitzarmenaren ondorioz, Altzoko Udalak herriko biztanleko 3 euroko laguntza emango dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI lau urte gehiagoz. Beraz, 2008tik hasita, 2011ra arte.

HITZA euskararen erabilera areagotzeko lanean ari da eta ariko da euskararen normalizazioa lortzeko bidean, tresna garrantzitsua izanik. Altzoko Udalak egitasmo honen zati izaten jarraitu nahi du, aurreko urteetan bezala, elkarlanean arituz.

Dagoeneko, Altzorekin batera, Villabonak eta Ibarrek ere lau urtetarako biztanleko hiruna euroko laguntza emateko konpromisoa hartu dute HITZAREKIN.

## Amezketarrentzako ibilaldia antolatu dute

### ERREDAKZIOA

Amezketako ongizate batzordeak ekainaren 1erako 60 urtetik gorako herritarrentzat ibilaldia antolatu du. «Euskal Herria gehixeago ezagutzeko helburuarekin», Urretxu, Ezkio-Itxaso eta Araba aldera joango dira.

Irteera 08:00etan izango litzateke autobusez. Ergonetik abiatuko da eta gero plazan eta Ugarten geldituko da. Urretxun, Aikur erle museoa bisitatuko dute. Ondoren, hamaiketako Urretxuko Iñaki Zabala alkatearen konpainian izango da. Amezketarra da berez, eta kontuan ariko dira berarekin.

11:00etan, berriz, Ezkio-Itxason, Igartubeiti baserria bisitatuko dute. Bazkaria, Gasteiz aldean dagoen Ruta de Europa hotelean egingo dute.

**Arratsaldean gatz meztetara** Arratsaldean Gesaltza Añanan gatz-meatzeak eta Varonatarren dorrea bisitatuko dituzte, ondoren meriendatzeko. Amezketan berriz 21:00etan egotea espero dute.

Txartelaren prezioa 25 eurokoa da eta izena emateko egunak datorren astelehen, asteartea eta asteazkena dira. Informazio gehiago, Udaletxean.

**hazi**  
nahi duten pertsonentzat

## Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

### Buruntzaldea

Maiatza, Asteartea 27, asteazkena 28 eta osteguna 29.  
19.00etatik 21.00etara, Hernaniko Biteri Kultur Etxean.

### Urola Kosta

Maiatza, Asteartea 27, asteazkena 28 eta osteguna 29.  
19.00etatik 21.00etara, Zarauzko Sanz Enea Kultur Etxean.

Izen emateko:

Deia

943 25 10 05

Itelak

partehartu@baketik.org

Setsa

www.baketik.org

Laguntza:

Aholketa:

Elkarlana:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

kultura politikoa berria  
www.kulturapolitikoberria.com



Garikoitz Altuna amezketarrak eta Patxi Zeberio elduindarrak II. Thermotechnic txapelketan parte hartuko dute...it.

## Thermotechnic txapelketa berezian jokatuko dute Altuna II.ak eta Zeberio II.ak

**Erremontea** » Garikoitz Altunak Etxaberekin jokatu du eta Patxi Zeberio Etkurra izango du bikotekide.

ASIER IMAZ

II. Thermotechnic Txapelketa maiatzaren 24ean, etzi, hasiko da Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan.

Binakako ezohiko txapelketa da Thermotechnic izeneko, momentuko bi aurrelari eta atzelari onenek elkarren artean osatzen baitute bikotea, hau da, Zeberio II.ak Ezkurrekin eta Lizasok Urrutiarekin jokatuko dute.

Txapelketaren lehen fasean ligaxka jokatu du A multzoko eta B multzoko bikoteek euren al-

detik. Aurrelariak osatzen duten bikoteak A multzoan jokatu du eta atzelarien bikoteak B multzoan.

Bikote berezi hauetaz gain, multzo bakoitzean ohiko beste bi bikote hartuko dute parte, hau da, aurrelari batek eta atzelari batek osatutako bi bikoteek. Hauen artean Garikoitz Altuna amezketarra aurkitzen da, Etxabe atzean duela A multzoan jokatu du baitu.

### Altuna II.a vs. Zeberio II.a

II. Thermotechnic Txapelketa etzi hasiko da Galarretan eta lehen partida 17:00etan jokatu du eskualdeko bi erremontistek elkarren aurka. Lehen lehia honetako bikote irabazleak maiatzaren 31n jokatu du bigarren partidua Urriza-Iriarteren aurka. Bikote galtzaileak berriz ekainaren 8an.

Multzo bakoitzeko lehen bi bikoteak finalerdietarako sailkatuko dira. Gauzak horrela, A multzoko lehenek B multzoko bigarrenen aurka jokatu du eta B multzoko lehen bikoteak A multzoko bigarrenen aurka.

Finalerdiak ekainaren 14ean eta 15ean jokatu dira eta finala berriz ekainaren 21ean Hernaniko Galarretan.

### Bi atzelariak nagusi

Thermotechnic Txapelketa iaz jokatuz lehenaldiz eta ezustean bi bikote berezian iritsi ziren finalera, hau da, aurrelariak eta atzelariak osatutako bikoteak. Ikusmin handia sortu zuen finalak eta partida gogorra zein lehiatua izan zen. Amaieran Lizaso-Urriza 40-39 nagusitu ziren Zeberio II.a eta Ezkurren aurka.



Porrotx ikustera haur eta guraso ugari elkartu ziren Gunea aretoan. ASIER IMAZ

## Haurrengan irrifarrea piztu du Porrotxek Aste Kulturalean

**Lizartza** » Aste Kulturalean erdibidera iritsi da eta herritarren erantzuna ez da eskasa izan lehen egunetako ekitaldietan.

A. IMAZ

Udal Alternatiboak antolatutako Aste Kulturalean aurrera doa Lizartzan.

Atzo Porrotxek emanaldia eskaini zuen txikiarentzat, ondoren, Jesus Martinez Eizagirre medikuak hitzaldia eskaini zuen.

### 'Boli'-rekin film emanaldia

Gaur 20:00etan Gunea aretoan Jon Goikoetxeak, Boli-k, Iparrameriketako mendi altuenaren inguruan grabatutako irudiak aurkeztuko ditu: *Denali, Alaskako mendia* izeneko dokumentalean.

Bihar kantu poteoa eta *Lain* musika taldearen emanaldia egongo dira herriko plazan eta Gunea aretoan.

### » EGITARAUA

#### Maiatzak 22, gaur

■ 20:00etan. Film emanaldia Jon Goikoetxearen, *Boli*-ren, eskutik.

#### Maiatzak 23, bihar

■ 20:00etan. Kantu poteoa.  
■ 22:30etan. Gunean *Lain* musika taldea.

#### Maiatzak 24, etzi

■ 10:00etan. Mendi irteera helduentzat.  
■ 10:30etan. Mendi irteera haurrentzat Goltzurko zelaira. Ondoren hamaiketako egongo da.

#### Maiatzak 25, igandea

■ 11:00etan. Hamaiketako Elkar-tean.  
■ 12:30etan. Otsolar dantza taldearen emanaldia.  
■ 14:00etan. Helduen bazkaria dohain.  
■ 18:00etan. Herri kirolak. Lizartza-Gaztelu.



## très Bonn.

Très Bonn hitz gutxitan Citroën C4 berria zer den azzaltzeko modua da. Xehetasun txikiena ere ondo zaindutako dotoretasun eta teknologiaren arteko nahasketa da. Benetazko luxua denaren adierazpena: kalitatea guztiaren gainetik. Auto handia: ongi pentsatua, ongi egina... Frantziar izpirituaren onena benetako berrikuntzaren izaerari lotuta. Bi hitzetan: Très Bonn

CITROËN C5 BERRIA. ALEMANIAR NORTASUNA. FRANTZIAR IZPIRITUA.

CITROËN C5 BERRIA

ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa  
Tel.: 943 65 18 42

# Areso, azken postuan, Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketan

**Areso** » Goiherri eta Gaztediren arteko lehia izan zen gogorrena, azken unera arte ez baitzen txapelduna erabaki.



Joan den urteko Euskal Herriko Txapelketan, Aresori. N. GARZIA

## ERREDAKZIOA

Igandean amaitu zen 680 kiloko Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa eta Goiherri jantzi zuen txapela. Areso sailkapen orokorrean azken postuan gelditu da, puntu bakarrekin.

Lehen jardunaldian Gaztedi gailendu zen, bigarren goan Goiherri eta igandean ere Goiherri irabazi zuen.

Getxoko Andra Mari (Bizkaia) probalekuaren aldamenean jokatu zen 680 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia igandean. Txapela lortzeko 2 talde aritu dira lehian eta 2 jardunaldi jokatu ondoren, bederatzina punturekin zi-

ren Goiherri eta Gaztedi sailkapen orokorrean. Beraz, igandeko saioa erabakiorra izan zen.

## Areso, azkena

«Ez genuen espero azkenekoak gelditzea», dio Patxi Sagastibelza sokatiralariak. «Lagun berri asko-

rekin joan ginen eta esperiantzia zutenak asko faltatu ziren. Berri asko sartu genituen ez teknikaz oso baju izatearekin, ez genituen gelditu aurkariek ematen zituzten kolpeak, jendea okertuta gelditu zen, ezin eutsiz».

Getxok eta Mutrikuak saioko bi-

garren txanda jokatu zuten, eta bana berdindu zuten. Getxok azkeneko postua saihesteko Areso zuen aurkari nagusia, hiruna punturekin baitzeuden sailkapen orokorrean. Getxo, ordea, indartsuago aritu zen igandean, eta 2 tiraldiak eraman zituen, eta Aresok, berriz, ez zuen tiraldirik irabazi.

Txapelketa honen ondoren, ordea, 640 kilotakoan eta 600 kilotakoan ere parte hartuko du Aresoko taldeak. «580ekoan ikusiko dugu, baina beharbada ere bai», dio Sagastibelzak.

## Gaztedi eta Goiherri

2 talde hauen arteko txanda zazpigarrena izan zen igandean. Ordu arte seina punturekin ziharduten, eta 2 tiraldiak antzekoak izan ziren, nola jardueran hala denboran, eta oso gogorrak.

Lehen tiraldian Gaztedik eraman zuen metro bat, baina Goiherri ongi eutsi zion ondoren eta az-

kenean honek irabazi zuen, 8 minutu eta erdian. 2 minutuko atsendenaren ondoren alde aldatu eta berriro ekin zioten lehiari.

Aurreko tiraldiaren antzekoa izan zen hau, baina bina faltarekin jarri ziren 2 taldeak. Hor egon zen tiraldiaren gakoa, faltak ez egitera ere jo izan behar baitzuten. Azkenean Goiherri Gaztedi mendean hartu zuen, 21 kilo gutxiago pisatzen dituen arren.

Saioa ikustera hurbildu ziren 180 ikusleek biziki eskertu zuten Gaztedi eta Goiherriren arteko norgehiagoka.

## » 680 KILOKOA

### Azken sailkapena

- **Goiherri (Bizkaia)**, 14 puntu.
- **Gaztedi (Bizkaia)**, 13 puntu.
- **Mutriku (Gipuzkoa)**, 8,5 puntu.
- **Getxo (Bizkaia)**, 5,5 puntu.
- **Areso (Nafarroa)**, 4 puntu.

### Azken jardunaldia

- **Goiherri**, 12 puntu.
- **Gaztedi**, 9 puntu.
- **Mutriku**, 4 puntu.
- **Getxo**, 4 puntu.
- **Areso**, 0 puntu.



## Aurrehistorian sakonduz

**LEITZA** • Herenegun historiaurreko monumentuei buruzko hitzaldia eman zuten Kultur Astearen barruan. 40 lagun inguru bildu ziren bertan, eta aretoa erabat bete zen. Iñigo Txintxurrietak Europa mailan eta Es-

painian monumentu hauen historia azaldu zuen. Elo-segi Leitza topatu dituzten monumentuen inguruan mintzatu zen. 1920tik 2000. urtera 9 topatu zituzten, eta azken 8 urteetan, 16 topatu dituzte. N. GARZIA



## Batzar aretoan erakusketak ikusgai

**LEITZA** • Kultur Astea dela eta, zenbait erakusketa jarri dituzte batzar aretoan. Aurtengo ihoteetan atsaretu direnen txapelak ikusgai jarri dituzte, baina baita beste zenbait eskulan ere. Araitzeko, Maite Biurra aretan lanaren erakusketa jarri dute, hagitz fina eta ederra. Astez 18:00etatik 20:00etara ikus daitezke, eta igandean 12:00etatik aurrera. N. GARZIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina**. Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

### SALGAI

■ **Etxebizitza**. Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 665 70 86 35.

**Beti alai jatetxea**  
Garaian garaiko janariak  
Arraikieta berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**MENDI-ALDE**  
Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaumartzeak...

**Jatetxea**  
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

- **Tolosa.** Saharako haurren etorreraz hitzaldia Helduen Heziketa Iraunkorrek eskolan 16:00etan.
- **Altzo.** Udaletxean intentsitate emozionalagatik estres handia eta gainditurik egotearen sentimena sortzen duten gertaeren aurrean afektu-dolua egoki bideratzen jakitea duen hitzaldia izango da. Bezeki 3. adinekoentzat, 18:00etan.
- **Alegia.** Iñaki Arratibelen Lehen sorospenak eta Lesioak nola tratatu gaien inguruko hitzaldia Kirol Kultur Etxean 19:30ean, IV. Kirol Astearen barruan.

### Zinema

- **Tolosa.** *Al otro lado* filma eman-go dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### Deialdiak

- **Tolosa.** Uztailaren 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatutako elkartean. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.
- **Tolosa.** Txinparta elkarteak antolatzen duen pintura erakusketarako izen-ematea egin daiteke elkartearen bertan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Txiki-txikitatik artera hurbilduz

**ALBIZTUR** ■ Atzo goizean, Albizturko eskolako ikasle guztiak Villabonako Gurea zinemari izan ziren. Arrazoiak? Eskolan margolariak eta haien biografik lantzen ari dira eta Villabonan bizi den Helga Massetani argentinarraren margolanak han zeudela jakinda, aukera aprobetxatu egin zu-

ten. Berarekin harremanetan jarri eta hitzordua atzorako jarri zuten. Margolariarekin egon ziren eta ikasleek prestatuta zituzten galderak erantzun egin zituen Massetani. Guztira 17 ikasle joan ziren, bi urtetatik hasita, 5. maila bitartekoak. Hori da hori zortea, ikasleok... HITZA

## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

agurrak

**HEZIKETA ZIKLOAK**  
Diseinu Grafikoa  
Kirol Ekintzak

**Ate Irekiak**  
Maiatzak 22  
18:00 - 19:00  
Barandiaran Lizasoan

*ixan nahi duxuna!*

**www.barandiaranlizeoa.com 943 21 33 55 barandi02@ikastola.net**

**ANTZERKIA**  
**ezker-eskuma**

Elizpe Goenaga  
Zuzendariak: Ane Gaberain, Elizpe Goenaga

Loli Astorica  
Jake Irastorza

**BIHAR • OSTIRALA**  
22:00etan  
**VILLABONAKO • GUREA ANTZOKIAN**

VILLABONAKO UDALA KULTURA BATZORDEA Gipuzkoako Foru Aldundia Kultura eta Euskara Departamentua